

IRAKASLEAK

2021-2022 IKASTURTEAREN HASIERAKO ESLEIPEN-PROZESUAN LANPOSTUA ESLEITU ETA JABETZA EGIN EZ ZUEN HAUTAGAIK.

Behin-behineko zerrenda [Hezkuntzako web orrian](#) argitaratu da.

Alegazioak aurkezteko, sinatutako idazki baten bidez aurkeztuko dira, ikhaerreklamazioak@euskadi.eus helbidean, **abenduak 15ra arte**, egun hori barne.

SAILAREN MENDEKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXEETAKO ZUZENDARIAK HAUTATZEKO MEREZIMENDU-LEHIAKETA ATZERATZEN DUEN EBAZPENA.

Zuzendariak hautatzeko merezimendu-lehiaketarako deialdia egiten duen [Agindua](#) argitaratu dute, 2022ko ekainaren 30ean hutsik geratu diren zuzendari-postuetan.

STEILAS [sindikaturen hausnarketa](#) irakurgai.

2020 GIZA FONDOA.

Onartuen eta baztertuen behin betiko [ebazpena](#) argitaratu dute Hezigunean.

EPE 2020. BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA.

Hautagaien behin-behineko zerrendak abenduan aterako zituztela aipatu baziguten ere, azken berrien arabera urtarrilean argitaratzeko aurreikuspena dute.

STEILASetik, hautagai hauek oposizio fasean jasan duten ziurgabetasuna kontuan izanik, Administrazioari prozesua lehenbailehen ebaztea eskatzen da.

INOIZ BAINO GEHIAGO, ZERBITZU PUBLIKOAK ZAINDU!